

Joan den irailaren 9an, Estatuko Aldizkari Ofizialak abuztuaren 1eko 1379/2008 Errege Dekretua argitaratu zuen, "pertsontzako etxeko artapen soziosanitarioa" lanbide-ziurtagiria erregulatzen duena. Arau hau "etxeko laguntzaren" lanbide-ziurtagiria erregulatzen zuen 1997ko martxoaren 7koa ordezkatzera dator.

"Pertsontzako etxeko artapen soziosanitarioa" lanbidearen betebeharrak mendekotasuna duten pertsonen artapena ematea eta haien etxea mantentzea, garbitzea eta antolatzea dira. Lan hauek, egun, erabiltzaileek zuzenean kontrataturiko etxeko langileek betetzen dituzte gehienbat, Mendekotasun Legearen prestazio eskubideak ematen dituen etxeko artapenerako orduak ez baitira nahikoak (normalean hilero 70 ordu inguru astelehenetik ostiralera mendekotasun nagusirako, eta ordu gutxiago mendekotasun maila txikiagoetarako) eta, gainera, artapena behar duen jende asko dago, nahiz eta Legeak mendeko bezala onartuak ez egon,.

Jarduerarako definitzen den lan-esparruak bi aukera besterik ez die ematen etxean zaintzen aritzen direnei:

- : Lana autonomoen erregimenean edo kooperatibetan
- : Besteren konturako lana erakunde publiko eta pribatuen bidez

Aurrekoak esan nahi du pertsona batek bere etxeko artapenerako zuzenean kontrataturiko langileak Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorren barne egoteko aukera baztertu dela.

Legezko xedapen honen arabera, etxean zaintzeko zuzenean kontrataturiko langileei euren enplegatzaileak dagoeneko ez die Gizarte Segurantzari alta eman behar, haiek beraien eman behar dute alta eta Gizarte Segurantzari kotizatu.

Honen ondorio praktikoa hau izango da:

- : Ezkutuko ekonomia handiagoa etxeko lanetan, soldadak baxuak direlako eta Autonomoen Erregimenaren kuota ordaintzeko ematen ez dutelako;
- : Mendekotasun Legearen kostuak etxeko langileek ordaindu behar izatea, Gizarte Segurantzaren estaldurarik gabe bere kabuz gai ez diren pertsonak zaintzen uzteagatik.

Duela hilabeteak honako honetaz ohartarazi genuen: etxeko lanaren Gizarte Segurantzaren Erregimen Berezia desagertzeko estatuko sindikatuen eta Lan Ministerioaren arteko negoziazioan ez da langileak erregimen orokorrera igarotzeko lan egiten ari, baizik eta autonomoen erregimenera igarotzeko. Hau lehen urrats bat da, orain definituriko lanbide-prestakuntzarekin etxean zaintzen dutenei eragiten diena, baina hurrengoak iritsiz joango dira ekiditen ez badugu.

Etxeko Langileen Elkarte gisa, honakoa exijitzen dugu:

Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorra ohikotasunez etxe batean edo gehiagotan artapen pertsonalarekin, garbiketarekin, sukaldaritzarekin edo antzekoekin lotutako edozein zerbitzu mota emanez lan egiten duten pertsonentzat, bai erakunde publikoen, bai enpresa pribatuen kontura lan egiten dutenean, bai zerbitzuaren erabiltzaileek zuzenean kontratatatuak direnean ere. Salbuespen bakar gisa, Erregimen Orokorren eta Autonomoenaren arteko aukera kooperatiba erregimenean lan egiten dutenentzat.

Etxeko lanaren Gizarte Segurantzaren Erregimen Berezia desagertzea.